

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Gaur egungo energiaren kontsumoak jatorri fosileko erregaien gehiegizko mendekotasun handia dauka. Egoera horrek sortzen dituen arazoak oso ezagunak dira: hain urrun ez dagoen etorkizunean baliabide horiek agortzea; kanpokoen mendean egotea, horrek dakartzan ondorio politiko eta ekonomikoekin; eta ingurumenean eragin txarrak sortzea, besteak beste euri azidoa eta berotegi-efektua.

Eguzki - energia eguzkitik datorren erradiazio elektromagnetikoaren aprobetxamendutik lortzen dena da. Eguzki-erradiazioa aprobetxamendu ohikoenak aktiboak dira, eta horien artean nabarmen ditzakegu, oro har, eguzki-energia fotovoltaikoa eta eguzki-energia termikoa.

Eguzki-energia fotovoltaikoaren oinarria honetan datza: eguzki-erradiazioa aprobetxatzen da zelula fotovoltaikoak dauzkaten kaptadoreen gainean; horiek elektrizitatea sor dezakete korrante alfernoan, eta elektrizitate hori linea elektrikoaren baldintzetara egokitzen da jarraian, hainbat jarduera-sektoretan kontsumitzearen.

Eguzki-energia fotovoltaikoak honako hauen arabera sailka daitezke:

- Sare elektrikoan nola uztartzen diren aintzat hartuta: saretik apartekoak edo sareari konektatuak.
- Sortutako elektrizitatea zertarako erabiltzen den aintzat hartuta: autokontsumoa edo sare elektrikoari saltzea.

Eguzki-energiak eguzki-erradiazioa aprobetxatzen du ur beroa edo ur-lurruna sortzeko, hain zuzen ere, erabilgarri dagoen erradiazio-mailaren eta erabiltzen den teknologia motaren arabera. Hala, gailu edo kolektore termikoek beroa sor dezakete:

- Temperatura baxuan (gehienez 65°C). Ur Bero Sanitariorako eta/edo berokuntzarako ura berotzeko erabiltzen da normalean (esaterako, zoru bero-emallea).
- Temperatura ertainean (100-300°C). Batez ere, industria-sektoreko prozesu jakin batzuetan erabiltzen da.
- Temperatura handian (500 °C-tik gora). Lurrun-turbina batez elektrizitatea sortzeko.

Energia berriztagarria erabiltzea berotegi-efektuko gasak ez isurtzea eta eraikinen aztarna ekologikoa mugatzea dakar.

Inguruabar horretan, Gatikako Udalak, herritarren interesak babesteko betebeharra duen eta, horregatik, haien kezkez arduratzen den Toki Administrazioa denez, (ingurumena errespetatzea da herritarren kezkarik handienetako bat, iritzi-inkestetan aldian-aldian agertzen denez), bere eskumenen arloan energiaren erabilera sustatu nahi du herrian, horrela energia xedeetarako erregai fosil gutxiago erabiliko direlakoan.

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen xedea eguzki-energia hartzeko eta eraldatzeko instalazioen baldintzak arautzea da, instalazio horiek Gatikako udal-mugarteko eraikinetan sartzea ere. Energia elektrikoa sortzeko eta ur bero sanitarioa ekoizteko instalazioei aplikagarri izango zaie Ordenantza hau.

2. artikulua. Eraginpean dauden eraikin eta eraikuntzak.

2.1. Ordenantza honetako zehaztapenak aplikagarriak dira etxeko kontsumorako ur beroaren erabilera, energia aurrezteko eta energia elektrikoa ekoizteko, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Eraikuntzaren Kode Teknikoan (HE 4 edo HE 5) jasotako kasu bat izatea.
- b) Energia elektrikoa ekoizteko instalazioa izatea, gero konpainia hornitzailearen banaketa-sarean isuriko bada. Kasu horretan, gainera, jarduera-lizentzia izapidetuko da.
- c) Aurreko kasuez gain, bere kabuz edozein herritarrek, eguzki-energiaren aprobetxamendua egiteko instalazioa jarri nahi izatea.

3. artikulua. Denbora araubidea.

Eguzki-energia erabilera termiko eta fotovoltaikoetarako instalazioen lizentzia lortzeko betebeharrak, ordenantza hau indarrean jarri ondoren, lizentziak eskatzen diren eraikin eta instalazio guztietan, eragina izango du.

Lehendik egindako instalazioei ere eragingo die, udal honek bere garaian lizentziarik eman ez bazien, eskatu ez zutelako edo onartzeko erabakirik hartu ez zelako.

4. artikulua. Eskatzailea.

Eguzki-energia erabilera termiko eta fotovoltaikoetarako instalazioen lizentzia, instalazioaren titularrak lortu beharko du, titular hori instalazioaren lurzuaren edo eraikuntzaren jabea izan daiteke edo ez.

Jabe higiezin eta instalazio bakarra ez bada, behar besteko tituluaren bidez egiaztatu beharko da instalazioa egingo den lurzuaren erabilera osoa ahalbidetzen duen baimena.

5. artikulua. Administrazio baimenak.

5.1. Ordenantza honetako 2. artikulua aplikatu ahal denean, eraikin, eraikuntza edo erabilera guztietan Obretako Lizentziaren edo Obrak Hasteko Baimenaren eskabidean sartu beharko da.

Proiektu hori Burutzapen Proiektuaren atal berezi batean sartu ahal da, edo bestela, dokumentu independentea izan ahal da; dokumentu horren epigrafeetako batean zehatz-mehatz justifikatu beharko da Ordenantza hau

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

bete dela, eta gutxienez artikulua honetako 4.2. idatz-zatian azaldutako edukia bildu beharko da.

5.2. Eguzki-energia erabilera termiko eta fotovoltaiakoetarako instalazioen proiektua teknikari eskudunak sinatu eta dagokion Elkargo Ofizialak ikusonetsi beharko du, eta gutxienez dokumentu hauek bildu beharko dira:

a) Honakoak barnean hartzen dituen MEMORIA:

- Instalazioaren oinarritzko konfigurazioa.
- Instalazioaren eta bere osagaien deskribapen orokorra.
- Diseinuaren irizpide orokorren adierazpena: Oinarritzko dimentsionatzea eta hartzesistemaren diseinua, hauek azalduta: orientazioaren, inklinazioaren, itzalen, arkitektura-integrazioaren, ikusmeneko eraginaren justifikazioa, etab..
- Energia-sistema lagungarriaren deskribapena.

b) DOKUMENTU GRAFIKOAK: jarduketaren xede den eraikinaren guneen argazki erreportajea, eta hartzeko sistemaren definizioari buruzko planoak, dimentsionatze egokiarekin. Hartzeko sistema eraikinean bertan eta hurbileko inguruan integratzen dela egiaztatzeko, beharrezkotzat jotzen da fotomuntaia edo infografia egokia aurkeztea.

c) BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

d) Instalazioen AURREKONTUA, Kapitulu eta partidetan banakatuta.

e) ENERGIA ERAGINKORTASUN ZIURTAGIRIA.

5.3. Instalazioak proiekturik behar ez badu, proiektu horren ordez, Instalatzailerak aurkeztutako dokumentuak eta Energia Eraginkortasun Ziurtagiria aurkeztu ahal izango dira.

5.4. Eguzki-instalazio termikoa ezartzeko obrak amaitzean, eta abian jarri baino lehen, erabiltzen hasteko administrazio-baimen egokia eskatuko da; hori lortzeko, obraren amaierako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Instalazioa onartutako proiektuaren arabera egin dela adierazten duen Egiaztagiria. Agiri hori Teknikari eskudunak egingo du, eta dagokion Elkargo Ofizialak ikusonetsiko du.
- Jarduketa-gune guztiei buruzko argazki-erreportajea.
- Egindako obren faktura zehaztua.
- Energia Eraginkortasun Ziurtagiria.

6. artikulua. Prozedura eta Izapidetzea.

6.1. Izapidetzea.

6.1.1.- Erabilera termiko eta fotovoltaiakoetarako eguzki-energiako instalazioen lizentziaren kasuan, eraikin berri baten parte ez badira, eskatutako dokumentazioa aztertu ondoren, behar diren txosten teknikoak egingo dira.

Dokumentazioa osatu edo akatsak zuzendu behar izanez gero, eskatzaileari behar besteko epea emango zaio.

6.1.2.- Erabilera termiko eta fotovoltaiakoetarako eguzki-energiako instalazioen lizentziaren kasuan, jarduera-lizentzia izapidetu behar bada, biak batera izapidetuko dira, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

eta arriskutsuen erregelamenduan sailkatutako jardueretarako ezarritako izapidetze-prozedurari jarraituz. (2414/1961 Dekretua, azaroaren 30ekoa).

6.2. Ebazpena.

Udal zerbitzu teknikoen txostena ikusita, Alkateak ebatziko du eskaera, eguzki-energia erabilera termiko eta fotovoltaiakoetarako instalazioen lizentzia emanez edo ukatuz.

7. artikulua. Ordenantza hau betetzeko bermea

Eguzki-energia ekoizteko instalazioa gehienez ere lau urteko epean egin beharko da, haren obra-lizentzia ematen denetik aurrera.

8. artikulua. Teknologia erabilgarriak onena.

Ordenantza hau kasu guztietan teknologia erabilgarriak onenaren arabera aplikatuko da. Udalak xedapen egokiak emango ditu Ordenantza honetako aurreikuspen teknikoak gerta daitezkeen aldakuntza teknologikoei egokitzeko.

9. artikulua. Instalazioen betekizunak.

Eguzki-energia hartzeko eta eraldatzeko instalazio guztiek egunean eta aplikagarri zaien araudia bete beharko dute.

10. artikulua. Paisaiaren babesa.

10.1. Ordenantza honetan araututako eguzki-energiako instalazioek hiri-estetika zaindu beharko dute, paisaiaren ikuspegia desitxuratu gabe eta paisaiaren eta arkitekturaren harmonia kaltetzea eragotziz.

Instalazio horiek ondoko eraikinetan bizi diren pertsonak edo ibilgailuentzako bideen erabiltzaileak gogaitu ahal dituzten islak sarritan sorrarazteko ekidingo da.

10.2. Eraikuntza berriko eta ordeztzeko obretan, eraikinaren diseinuak eta osakerak kontuan hartu beharko dute zein diren inklinaziorik eta orientaziorik onenak eguzki-energia hartzeko panelen errendimendu hobezinerako.

10.3. Landa eremuetan ezartzeko eguzki-energiako instalazioak errepidetik 1,5 metrora egon beharko dira.

11. artikulua. Enpresa instalatzaileak.

Instalazioak enpresa instalatzaileek egin beharko dituzte sektorean aplikatu ahal den araudian aurreikusitakoaren arabera, eta behar bezala baimendutako erakunde batek homologatutako elementuak soilik erabili ahal izango dira.

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

Instalazio-proiektuan beti azaldu beharko dira instalazio hori osatzen duten osagaien ezaugarriak.

12. artikulua. Energia elektrikoko konpainientzako betebeharrak.

Energia elektrikoaren enpresa hornitzaileek edo hartzaileek, instalazio horiek kontratatu, merkaturatu eta martxan jartzeko, udal honek emandako lizentzia eta azken baimena lortu izanaren egiaztatzea eskatuko dute.

13. artikulua. Zaintzeko betebeharra.

13.1. Eguzki-energiaren hornitutako higiezin dagoen instalazioaren jabeak edo higiezin horretan egiten jardueraren titularrak instalazioa segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoko egoera egokian eduki beharko du. Instalazioa zaintzeko betebeharraren ondorioz, garbiketa eta mantentze-lanak egin beharko dira, aldi behin beharrezkoak diren neurketak eta konponketak eginda, ondoko helburu hauek lortuko direla ziurtatzeko:

- a) Instalazio horiek baldintza batzuetarako baimendu badira, horiek betetzeko moduan iraunaraztea.
- b) Funtzionalitatearen baldintzak iraunaraztea, baita segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikokoak ere, horrek euskarriak barnean hartzen dituela. Halaber, eguzki hargailuak sei hilabete behin garbitu beharko dira derrigor.

13.2. Eraikin bati erabilera termikoetarako eguzkia hartzeko instalazioa erantsiz gero, instalazio horrek beti eduki beharko ditu energia termikoa neurtzeko eta tenperatura, emaria eta presioa kontrolatzeko ekipo egokiak, sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatzeko moduan.

13.3. Instalazioaren mantentze-lanez jabeak edo titularrak arduratu beharko dira norbanakoek edo taldeek erabiltzen dituztela ere.

14. artikulua. Ikuskaritza eta burutzeko aginduak.

14.1. Udal Zerbitzu Teknikoek eguzki-energia hartzeko eta eraldatzeko instalazio guztiek ikuskatu ahal izango dituzte Ordenantza honetako aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzeko.

14.2. Udal Zerbitzu Teknikoek egindako ikuskaritza baten ondorioz instalazio horietan edo horien mantentze lanetan anomaliak antzemanen gero, anomalia horiek egiaztatuko dira; horren ostean, udal erakunde egokiak beharrezkoak diren agindeiak egingo ditu, eta inguruabar horren berri emango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde erakundeari, sektorean aplikatu ahal den araudian xedatuta dagoenaren ondoretarako.

14.3. Aurreko artikuluan ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko, Udaleko organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen betearazpen-aginduak emango ditu.

ERAIKINETAN EGUZKI ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEA ARAUTZEN DUTEN UDAL ORDENANTZA

15. artikulua. Obrak eta jarduerak etetea.

Alkateak eskumena du hirigintzako legeriaren arabera ordenantza hau bete gabe egiten diren eraikinetako eta erabileretako lizentziak baliogabetzeko eta obrak bertan behera uztea agintzeko.

16. artikulua. Legezketasunaren babesa.

Ordenantza honetan xedatuta dagoena urratzen duten egite edo ez-egite guztien zioz Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko Ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretu bidez onartutako Hirigintzako Diziiplina Araudian aurreikusten diren neurriak hartu ahal izango dira, urratutako hirigintzako ordena leheneratzeko eta erantzuleei zehapenak ezartzeko.

17. artikulua. Ez-betetzeak.

17.1. Udaleko zerbitzu teknikoen bitartean bidez egiaztatzen bada onartutako proiektuan aldaketarik egon dela, txosten teknikoan jasoko da, planteatutako egoera berria legeztagarria den ala ez zehaztuz.

Lehenengo kasuan, obra eta instalazioaren amaierako ziurtagiriarekin batera, legeztatzeke proiektu tekniko aldatzea eskatuko da, dagoen benetako instalazioaren adierazgarri izan dadin.

Bigarren kasuan, egindako arau-hauste mota zehaztuko da.

17.2. Indarrean dagoen araudia, ordenantza hau barne, edo lizentzia emateko ezarritako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, berehala irekiko da hirigintza-diziplinako espedienteak.

17.3. Instalazioaren titularrek debekatuta dute instalazioa martxan jartzea udal honen baimena lortu aurretik.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Behin betiko onespeneraren erabakia, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 15 egun balioduneko epean hartuko du indarra ordenantza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluekin bat etorritik.